

ZALDIBAR: FRAUDE EN LA GESTIÓN DE RESIDUOS

Lo que ha ocurrido en Zaldibar es gravísimo e inaceptable. Es necesario que la ciudadanía conozca qué ha pasado y depurar las responsabilidades que puedan haber

- A estas alturas dos trabajadores siguen desaparecidos. La búsqueda debería haber sido prioritaria para el Gobierno Vasco, pero no lo ha sido.
- El vertedero de Zaldibar gestionado por Verter Recycling **no estaba autorizado para recibir residuos peligrosos**, pero se llevaban allí residuos industriales peligrosos.
- **Algunos residuos que se depositaban en Zaldibar se vertían directamente**, sin tratamiento previo alguno. Esto está terminantemente prohibido.
- El vertedero sí que tenía autorización para recibir amianto, pero **no se seguía el protocolo establecido para ello**.
- En cuanto se produjo el derrumbe **la prioridad de las autoridades fue abrir enseguida la autopista A-8**, no garantizando la seguridad y salud de quienes acudieron a las labores de rescate. Hasta que se abrió la autopista no se paralizaron los trabajos y así poder adoptar las imprescindibles medidas de seguridad que previamente no se habían adoptado.
- **Se ha ocultado información a la población contigua al vertedero** y las primeras explicaciones -muy deficientes, por otra parte- han llegado cuando se han dado las recomendaciones a raíz de los malos resultados de las mediciones del aire, y la gente ha empezado a movilizarse.
- A la vista de las recomendaciones que se han dado a la población, las personas que trabajan en empresas y centros de trabajo situadas en las inmediaciones del vertedero también deben adoptar medidas protectoras específicas para la respiración. Sin embargo, **las administraciones no**

han establecido ninguna norma para proteger a quienes trabajan alrededor del vertedero.

- En su comparecencia del Parlamento Vasco, **el Lehendakari y los consejeros implicados se limitaron a justificar su -mala- gestión; no dieron explicaciones**. Entre tanto, se ha pretendido imponer la ley del silencio a las personas que trabajan en el departamento de Medio Ambiente.
- **Solo 5 de los 15 vertederos existentes en la CAPV tienen gestión pública**. El resto está en manos de empresas privadas y de su enorme codicia. ¿Cuántos casos hay como el de Zaldibar? No lo sabemos, porque no se quiere dar información al respecto.
- **El departamento de Medio Ambiente está obligado a controlar, inspeccionar y, cuando se dé el caso, sancionar a quienes gestionan Zaldibar**. El departamento no ha cumplido y es responsable de este desastre. En la inspección realizada en 2019 se detectaron 23 deficiencias, que no habían sido corregidas porque este asunto no está entre las prioridades de la administración.
- **Aunque hace tiempo se conoce el problema que supone la generación de residuos, las administraciones no hacen nada para reducirlos**. Mientras hablaban de la economía circular ocultaban residuos industriales y peligrosos en Zaldibar.
- En 2018 se generaron 3,5 millones de toneladas de residuos industriales no peligrosos y 320.000 toneladas de residuos peligrosos en la CAPV. Gran parte de ellos acabaron en Zaldibar. **¿Adónde se llevarán todos estos residuos a partir de ahora?** Es necesario limitar la generación de residuos, porque son demasiados y son peligrosos.

PREKARITATEA HILTZAILEA
#ZaldibarArgitu

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

ZALDIBAR: ZABOR KUDEAKETAREN IRUZURRA

Zaldibarren gertatutakoa benetan larria eta onartezina da. Beharrezkoa da herritarrek gertatu dena jakitea eta ardurak dituztenek erantzutea.

- **Bi langile desagertuta daude oraindik.** Bilaketa lanak lehentasuna izan beharko lukete Eusko Jaurlaritzarentzat, baina ez da horrela izan.
- Verter Recyclingek kudeatzen zuen Zaldibarko **zabortegeiak ez zuen hondakin arriskutsuak jasotzeko baimenik**, baina industriako hondakin arriskutsuak hartzen zituen.
- Bertara botatzen ziren **hondakin batzuk zuzenean isurtzen ziren**, aurretik tratatu gabe. Hau guztiz debekatua dago.
- Amianto jasotzeko baimena bazuten, baina **ez zen behar den protokoloa jarraituz egiten**.
- Luizia gertatu eta berehala agintarien lehentasuna **A-8 autobidea irekitzea izan zen**, ez bilaketa lanetara joan zirenen segurtasuna eta osasuna bermatzea. Autobidea ireki arte ez ziren lanak gelditu beharrezkoak ziren segurtasun neurriak hartzeko.
- Inguruko herrietako **biztanleei informazioa ukatu zaie lehen egunetik** eta lehen azalpenak -oso eskasak, bide batez- eman dira airearen neurketek emandako emailta txarren ondoriozko gomendioen ondoren, eta herritarrek mobilizatzen hasi direnean.
- Herritarrei emandako aholkuak zeintzuk izan diren ikusita, luiziaren inguruko lantoki eta enpresetan lanean ari diren pertsonen ere arnaserako babes-neurri espezifikoak erabili behar dituzte. Hala ere, **erakunde publikoek ez dute inongo araurik ezarri luiziaren inguruan lanean ari direnak babesteko**.
- Lehendakariak eta inplikaturako **sailburuek Legebiltzarrean egindako agerraldian ez zuten azalpenik eman**, ordurarte eginiko kudeaketa -kudeaketa txarra- justifikatzera joan ziren soilik. Bitartean isiltasunaren legea ezarri nahi izan die Ingurumen Saileko langileei.
- **EAEn dauden 15 zabortegetatik 5 bakarrik dute kudeaketa publikoa.** Besteak enpresa pribatuen esku daude, eta beraien irabazi gose basatiaren menpe. Zenbat ote daude Zaldibar bezalakoak? Ez dakigu, ez baita horrelako informaziorik eman nahi.
- **Ingurumen Sailaren betebeharra da Zaldibarko zabortegeiaren kontrola, ikuskaritza eta behar denean zigortzea.** Ez du bere lana egin eta ezbehar honen erantzule da. 2019an eginiko ikuskatzean 23 akats antzeman ziren eta oraindik zuzendu gabe zeuden, gai hau ez dagoelako administrazioaren lehentasunen artean.
- **Hondakin sorrerarekin dugun arazoaz aspaldi ohartu ginen arren, administrazioek ez dute ezer egiten** honi aurre egiteko. Ekonomia zirkularraz hitz egiten ari diren bitartean, hondakin industrialak eta arriskutsuak Zaldibarren ezkututzen zituzten.
- 2018an 3,5 milioi tona hondakin industrial ez arriskutsu eta 320.000 tona hondakin arriskutsu sortu ziren EAEn. Hauetako askok Zaldibarren bukatu zuten. Eta orain nora eramango dira hondakin guzti hauek? Beharrezkoa da hondakin sorrerari muga jartzea. Gehiegi sortzen dugu eta arriskutsuak dira.

PREKARITATEA HILTZAILEA
#ZaldibarArgitu

ELA
EUSKAL SINDIKATUA